

ALKATE DEKRETUA

Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolak antolatuko du aurten Bizkaiko ikastolen eta euskararen aldeko festa. Ibilaldia aurrera eramateko IBILALDIA elkarteak (G95300174) Ibarra Udalari 2025eko otsailaren 7an egindako eskaeran (2025-658 erregistro zenbakia) dirulaguntza eskatu zion.

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolaren helburu nagusiak honakoak dira: Euskal kulturen oinarritutako hezkuntza eskaintza indartzea, ikasleen ongizate emozionala erdigunean jartzea, hezkuntza eraldatzailea eta berritzailea bultzatzea, ikastolaren irudia haien zonaldean finkatzea eta proiektu kooperatiboa sendotzea.

Ibarra Udalak bat dator Ibilaldia 2025 ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra Udalak 2025eko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Ibilaldia.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Bizkaian ez dagoelako euskara, parekidetasuna/hezkidetza, jasangarritasuna eta parte hartzea sustatzea helburua duen beste festarik, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.04 2025 diru-partida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikularen, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikularen eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikularen arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Diruz laguntzea Ibilaldia 2025 proiektua Euskararen sustapena bultzatzea, sexu eta generoari loturiko rolak gaizkitzea, antolatzen dituzten ekintza guztietan jasangarritasunaren ikuspuntua txertatzea, Ibilaldia prozesu parte-hartzailea izatea; ikastolako eta herriko eragile guztien artekoa, berdintasun-ezberdintasuna bultzatzea, behar desberdinetako pertsonentzako Ibilaldia diseinatuz, hau da, denontzako Ibilaldia garatzea bilatzen duelako.

BIGARRENA. Aipatu dirulaguntza 800 €koa izango da eta Ibilaldia 2025 egitasmoa antolatzen duen EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO IBILALDIA ELKARTEA Elkarteari (G95300174) ordainduko zaio ES55 2095 0114 60 9118937686 kontu korrontean.

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025eko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.04 2025 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da.

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Ibilaldia 2025 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31a baino lehen:

- Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDIZ0002-Dekretua_OR/Decreto_GE (EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZ